

ZERGATIK HERRITARRAK PARTE HARTU ENERGIA-KOMUNITATEAN?

Jarraian datorren zerrendak jasotzen ditu herritar batek bere udalerrian sortu den energia-komunitateko kide izateko arrazoiak.

1. Krisi klimatikoaren aurkako borrokan lagunduko duelako.
 - CO2 isuriak murrizten lagunduko duelako.
 - Erregai fosilen kontsumoa murrizten lagunduko duelako.
2. Energia-komunitateak, trantsizio energetikoaren baitan, krisi klimatikoari aurre egiteko aukera ematen duelako.
 - Sorkuntza berriztagarria, mugikortasun jasangarria edo energia kontsumo murrizketa landu ditzakeelako
3. Energia eredu berria delako, demokratikoagoa,
 - Europako batasuneko 2018/2001 eta 2019/944 zuzentarauetan adierazten den moduan herritarra eredu energetikoaren erdian jartzen duelako.
4. Erabakiak tokian tokiko beharren arabera hartuko direlako.
 - Tokiko kooperatibak sortuko direlako eta bertako gobernantza izango dutelako.
5. Burujabetza energetikoan aurrera pausua delako,
 - Oligopolioarekiko menpekotasuna gutxitzen duelako.
6. Tokiko garapen komunitarioaren bitartez herriko egiturak sendotu eta erresilientzia hobetzen dituelako.
 - Herriko proiektu parte hartzaile bateko kide izateko.
 - Tokiko ekonomia hobetu dezakeelako.
7. Fakturan aurrezpenak lortuko direlako.
 - Saretik kontsumitzen ez den argindarra ordaintzen ez delako.
8. Energia alorrean ahalduntzen lagun dezakeelako.
 - Norbere energia kontsumoan kontzientzia eta kontrola izateko.